

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapenaren Zerbitzua

Karrerako funtzionarioen izendapenak argitaratzea

Ikusi dira Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenak, ebazpen honetan jasotakoak. Ebazpen horietan, Vitoria-Gasteizko Udalaren Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion karrerako funtzionarioak izendatzea erabaki da, 2017LEPeko eta 2018LEPeko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren hautaketa-prozesuaren ondorioz.

Ebazpen hau egin den egunean, hurrengo karrerako funtzionarioak izendatu eta lanpostuaz jabetu dira:

- Izen eta Abizenak: Elvira Arcos Alberti.
- COPU: 1037.
- Postua: Kontu-Hartzailea (Ogasuna).
- Eskala: 2110A.
- Efektu data: 2021/02/01.

Azaldutakoarekin bat etorriz, eta Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak (Tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua) 127. artikuluan emandako eskumenen arabera, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko ekainaren 22an emandako erabakiaren bidez emandako eskumen-eskuordetzarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT

1. ALHAOn argitaratzea erabakitzea Enplegu Publikoaren Eskaintza honen ondoriozko karrerako funtzionarioaren izendapena, Kontu-hartzaille bidezko deialdian.

2. Ebazpen hau interesdun guztiei jakinaraztea, administrazio-bidea amaitzen baitu; haren aurka zuzenean administrazio-auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, jakinarazpen hau egin eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean, edo, bestela, aukeran, berraztertze-errekurtsua ebazpen hau eman duen organo beraren aurrean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean. berraztertze-errekurtsuaren berariazko ebazpenaren aurka, administrazio-auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 14an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak
JON ARMENTIA FRUCTUOSO